

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

124n. Zenbakia

Azila  
1988



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ARANA'tar SABIN**

- Benetako abertzalea
- Benetako euskerazalea
- Bizkaieren "Akademia" nai ebana

# MENDIAK

## URBION



Sarritan esan oi dan lez, mendigoizaleentzat ez dago atsegingarri ez dan mendirik batzuk besteak baiño apaiñagoak ba'dira be, danak dabelako zer-ikusi eta zer-ikasi geien-geienak, geien baten pizkat amestlaria dalako menditar edo mendizalea.

Gure irakurleak dakiten lez gure idazlantxuen bitartez, geien alegindu garana gure ibilkeretan, euzko-mendiak eta euren inguruak ezagutzeko izan da, orretara gure Aberria, Euzkadi'ren edertasuna barruz eta azalez ezagutuaz al-danik egokien azalduteko.

Gure euzko-lurraldetik at'era be, aldi onetako Euzkadi'tik "kanpora", ba'dira mendi apaiñak, batez be euzkotarrantzat zer ikusi eta zer ikasi aundia dabenak, aintziña euzkaldunen lurraldeak izanak dirako geien bat: Onetaiko bat dogu Iberika mendi lerroan, "Cordillera Iberika"n aurkitzen dan URBION. Eta, ez dago esan bearrik mendi onen izena UR-BI-ON euzkerazko izena dala. Eta, mendi ori lenengoz ezagutu ebenak euzkotarrak, aldi aretan euzkaldunak, izan zirala, inguru aretako bizitanleak gure arbasoak zirako, gure abendakoak.

Urbion mendia, goiko gallurra izan ezik, arrizkoa dalako, goi-goraño belarrez jantzita dago, naita 2.228 neurkin goraka dituana izan. Kobalera (Soria), Kintanar de la Sierra (Burgos) eta Viniegra de Arriba (Logroño) errien bitartean aurkitzen da, goiko gallurrean iru erkiok, Errioxa, Burgos eta Soria mugatutzen dirala, jakiña!, Goi-goia baiño 250 neurkin berago, Ipar-Sorkaldera, aurkitzen da lenengo zingira (Lago), Najerilla ibaia'ren eta beraz Ebro'ren iturburu bat dana. Goiko gallurretik pizkat Sarkaldera jatsita aurkituko dogu iturburu txikiago bat Duero ibai zabalaren gorengo *iturburua* bear ba'da, Burgos'ko lurraldean. Eta, ainbat berago Ego-aldera, oso ospetsua dan zingira Baltza edo "Laguna Negra". Guztiz ederra bera, ur ots urdiñez beterik eta *aitz zorrotz eta zugaitez* ingurututa.

Goirengo sortzen diran iturburu orreik, bata Ebro ibaia bitartez Lurrarteko Itsasora (Menderraneo) eta bestea Duero bitartez Atlantiko'ra doiazanak, ur gardenak dira eta beraz, ortik etorriko da ziurki UR-BI-ON izena.

Asko izanik Urbion aintziñako euzko-mendi orrek dituan ikuskizunak bere gaillur-goiti ortatik, bere aldamenen be ba-dira zer ikusi batzuk: Kobalelera'tik Kintanar de la Sierra'ren bitartean eta bitxabal aldamenen, aurkitzen da Regumiel belar zeleikada zabal bat, bertan eleiza polit bat eta batzar-etxea erdian dituala eta, etxe orretatik 200 neurkin ingurura, aintziñako ildegi edo "Necrópolis" ikusgarria ea berrogeien bat illobi atxarri bizian egindakoak dituala. Ikusgarria benetan.

Aipatu dogun etxe orretan, inguruko erri ta errizkak bilduten ei-dira urtero, euren *erri orrein arazoak ebatziteko*.

Urbion orretara igoteko biderik egokiena; Kobalera ondoan Sorkalderantza artu bitxabal barria eta, goialdeko zelaiune batera igoenik berebillez, ta ordu ta iru laurdenean gaillurreraarte. Berantzean barriz, ordu bat inguruan Zingira Baltzara (Laguana Negra)'ra, gauza ikusgarri ori ikusi baga ezin leikelako geratu, eta ortik beste ordu erdian edo zerbait geiagoan berebi!!a laga dan lekura. Benetan txango bikaiña!

BASA-JAUN



# BIZKAIKO EUSKEREAREN ZAINDIA

(ARANA'tar SABIN'en BURUBIDEA)

Urte bat edo geiago izango da gaur argitaratzen dogun eta Arana'tar Sabin'ek idatzitakoa dan Bizkai'ko Euskerearen zaindia sortzeko araudia artu genduala.

Sabin'ek, guztiok dakigun lez, benetako bizkaitarra zalako, maite eban Bizkaia eta Bizkaia maite ebalako, bertoko andra ta gizonen jakintza-bidea izanik, maite eban baita, Bizkai'ko euskerea.

Ez dot uste idazki labur au toki egokia danik Sabin'ek bere pentsabidean izan eban 'aurrerapena aztertzeko. Ondo dakigu abertzaleai "bizkaitarrak" izena emoten jakela. Baiña, dana dala, Sabin'en pentsabideak ez dau ulertzen abertzaletasuna, Bizkai-zaletasun barik. Bizkai'ko euskerea aintzat artu barik, Sabin'ek ez leuke ontzat artuko euskalzaletasuna.

\*

Gaur zoritxarrez, eta bear ba'da Sabin-zaletasuna baztertzeke, asko dira Bizkai'ko euskereari zor jakon itzaltasuna galdu dabenak. Geroago ta gitxiago dirala uste dogu okerbide ori jarraitzen dabenak, baiña egindako kaltea or dago: gure gaurko ume askok gipuzkeraren aditz-joko batzuk erabilten ikasi dabe baiña ez dakie euskeraz nasai berba egiten, euren gurasoak ez dautse, egiten daben apurra, ulertzen eta inguruan entzuten daben euskerea eurenaren antzekoa ez dalako, berba egiten lotsatu egiten dira.

Bizkai'ko ikastegi eskotan ikasten dan euskerea, norberarena ez dan izkuntza bat, aleman edo ingles edo frantzes ikasten dan antzera ikasten da, ez erabilteko, ez norberaren izkuntza izateko, zerbait irakurteko eta ikastaldiren batzutan entzuteko ta idazteko baiña.

\*

Ainbat euskaldun ikusten doguz Bizkaia'n pozik, aspaldion euskereak aurrerapen aundia egin dauala eta Franco'ren aldi mingarrian izan eban arriskua azpiratu dauala gure euskereak esan eta esan dabiltzanak.

Zori txarrez, ezin onartu eritxi ori.

Gu ikasle giñanean ikastegietan erdera egin bear izan genduan, baiña geure etxean, jolasetan, eleizan eta danean euskeraz berba egiten genduan. Gaur, osterera, eta au guztiz mingarria da, eskola askotan eta ikastoletan umeak euskeraz ikasten dabe baiña euren etxean, jolasetan eta ikastolan bertan ikas-gelatik kanpora, erdera egiten dabe. Esan begie irakurleak zein dan egoera txarragoa, eskolan erdera eta kanpoan euskera ala alderantziz.

Bizkai'ko Euskerea, euskaldunik erdiak darabilen izkuntza gozo ta ederra, iñoz baiña arrisku aundiagoan dago galtzeko eta bide oneri jarraitzen ba'-dautsagu, urte gitxi barru Araba'n edo Naparroa'n, Barakaldo'n edo Bilbo'n jazo zana bera jazoku jaku: Euskerearenik ez da geratuko toki-izen eta abizen batzuk baiña.

Pentsau begie irakurleak Sabin'en araudi ori irakurten dabenean Bizkaitarrak zer egin bear dogun.

Eta arlo onetan dei berezia egiten dautsagu Sabin irasle dauan Eusko Alderdi Jeltzaleari (PNV'ri). Daroagun bidetik ez dogu jarraitu bear, bide ori ondamedi-rako bidea da. Gure errietan, eta au antxiña idatzi eban aldizkari onetan euskalzale ospetsu batek, ez da iñoz euskera baturik erabiliko, Bizkai'ko euskerea galtzen danean, erdereare sartuko da. Ori gaur ikusten dogun gauzea da. Itxartu gaitezana.

Dei bardiña egin bear, entzun nai ba'dabe, beste alderdi politikuai eta Albiste-bideai, batez be ETB'ri eta DEIA'ri.

Gaurko gure berba oneik Bizkai'ko Euskerearen zaleak egiten daben dei larria, SOS, izatea nai dogu. Ondamendirako bide onetatik alboratu gaitezana, bide au ur dagoan amiltegi batera doa!



## IPAR AMERIKETAN EUSKALDUNAK

"Lauaxeta" Ikastola inguruan baserri edo auzo baten bizi dan, andra zintzo bat, izenezko Mari Tere. Aurten-go udean. Ipar Amerikara joan-etorria egin dau bere nebeari ikustaldi bat egitera.

Bere etxera eldu nintzan alkar-izketa eukiteko.

—Zu, Mari Tere, Ameriketara joan zareala jakin dot. Zer dala-ta? Zelan egin dozu joan-etorri luze au?

—Bai, jauna. Wagon-List Agencia'k antolatu, eban egazkiñean 80 bidazti joan gintzazan. "Deia" Izparringiak iragarri euskuzan eguna, tokia, ordua ta orretako bear diran zerzelada guztiak.

—Zure aizteak lagunduta joan ziñala esan deuste. Eta ara zeuen nebeagana eldu ta gero zenbat aldi, zenbat egun igaro zenduen an.

—Amabost egun egon giñean gure nebeak daukon etxean, Rantxo, Etxalde, Bassetxe eder baten, Ydaho errian, Boisse lurraldean.

—Ni abade praillea naz, ta jakin gura neuke an ara joaten diran Euskaldunak, Bizkaitarrak jai, igande domeketan Mezea entzuten dabe? Ez dabe fedea sinismena galdu?

—Ez, ez sinismena gordeten dakie. Nire nebearen etxeokak, euskotarrak ta an bizi diran katolikuak, geienak Mexikotarrak nezea entzun genduan ni an egon nintzan domeka bietan, alboan ikusten dan argaskian agiri dan lez. Abade jauparia Mexikotarra zan.

—Eta zure nebea zelan bizi da? Aberats, ondasundun izango da, ez?

—Aberats ez, ondiño beintzat. Egia esateko, ango lurraldetan lan egitego gogo asko izan ezkeru, ondo ateraten dabe bizi-bidea. Ori bai, izerdi, ekiñaldi ta nekaldiz ibilli ta gero, ondasunak be batuko dira naiko aberats egiteraiño. Zuk badakizu zure denboretan zenbat bizkaitar aberats «indianu» deitzen yakoen ikusten ziran arro-arro euren erloju ta kate urrezkoak bular edo papar aurrean erakutsiz ta espan gaiñekoa bizar luze ta biurkaz apaindurik.

—Parkatu, Mari Tere, baiña itaundu gura neuskizu zure nebea nogaz bizi dan ta eskondua ala eskonbakoa dan.

—Emengo neskatilla, nire lagun bategaz eskonduta joan zan ara dirua egiten. Eta jakiña beronegaz bizi da ta alaba bi daukiez. Noizipen, Euskal Errira etorten



dira. Danok bizi dira pozik, gogor ta gogoz bear egiten ia irabazten dabezen dollar batzuk geiago.

—Euskaldunek Mezea entzuteko lez, batuten dira jaiak ta kirolak egiteko?

—Bai orixe, pozik ta alai. Emoten deutzudan argazkian, mutillak euren txapel gorri, gerriko orlegi eta praka ta jake zuriz jantzita, eta neskatil lirañak gona gorri zabalez apaindurik, talde pozgarri, poz-giroan gertuta dagoz biribilketa egin ta auresku dantzateko txistu tan danbolin edo bearbada auspo soiñuz emen ikusten dogun (lez).

—Egun oneitan deia gure izparringiak Biakaia bere orrialdi "Egurtxiki"z diardu Onek Gernika'ri buruz elebarri bat idatzi gura ei-dau. Zu an egon ziñanean Mari Tere, ez dozu entzun orrelango barririk?

—Ez. Baiña bai andik ona datozela bat baiño geiago, geu ezagutu ta gure oitura eta tankera ikusi ta jakiteko.

—Egia esan daigun, badakie futbol ta txiringutza kirol bi onein arrobi-kantera on ta ugaritsua aurkitzen dana. Alan be, kirol orreik ez dira Euzkadi'n sortuak. Orratiño, ba-da erriarteko kirol ikusgarri bat Euskaldun Bizkaitarrak sorturikoa ta mundu zabalean zear poz-atsegiñez erabilten dana. Badakizu zeñi? Kirol-dantza izena deukona Baita zesta-punta, jai-alai be. Uri andi askotan, London, Alexandria, New-York, Buenos'en... ezautua.

Markiña Bizkai'ko erritxuan, eskolak dagoz kirol eder ta erriarteko au irakasteko. Sarriaskotan datoz Ypar Amaeriketatik emengo mutillak alogerean artu ta ara eroateko. Miami'n zesta-puntadun Bizkaitar asko dira. Olango onen ogibidean dirutxua eginta ren Jaunerrira Bizkai maitera datozenak ain aberats ta arro ez bada, lengo "indianuek" beste, bai onein antzera pozatsegiñez.

LETONA'K

# EUSKERA BIZKAITARRA AZTERTZEKO BAZKINTXEA

(Oarra: Eskuardean daukagu aspaldion, Arana'tar Sabin'ek bere eskuz idatzitako agiri baten argazki-iekia. Erderaz dago idazpurua izan ezik beste guztia eta geuk euskeratu dogu. Agiri au betiko abertzaleentzat eta euskalzale guztientzat jakingarria dala uste dogu eta orregaitik argitaratzen da).

## ARAUDIAREN EGINBIDEA

### I ATALA: B.B.B.'ak ezarriko dauana

#### II ATALA: Erakunde osoa

- 1.º ARAUA: Euskera Bizkaitarraren Bazkindea (Akademia) izango da izena.
- 2n. ARAUA: *Amabost* bazkide oso (zenbakidun) izango dauz eta bazkide *zenbakitu-ebak* eta *egokituak* zenbat diran mugatu barik.
 

*Zenbakiduna* izateko *batzarkide* izan bear da eta Abando'n, Bilbao'n edo Deustu'n bizi.

*Zenbakitu-eba* izateko Abando'n, Begoña'n, Bilbao'n edo Deustu'n bizi izan bear da eta euskaladuna izan.

*Egokitua* izateko Abando, Begoña, Bilbao eta Deustu'tik kanpo bizi bear da eta ez da bearrezkoa euskerrea jakitea.
- 3n. ARAUA: *Batzarkide* diran kidekoak eta *zenbakitu-ebak* diranak Zuzendaritza-Batzordeak ezarten dautsezan lanak egin bear ko dabez. Ezetza emoten ba'dabe, orretarako zioak idazkiz agertu bear ko dabez eta zio oneik naikoa diran ala ez Batzordeak berak esango dau; naikoa ez dirala uste izan ezkerko. Bazkidea (akademikoa) atera egin leike.
- 4n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak isilleko autarken bidez erabagiko dauz, bazkide baten ustez, ardurapean, daukazan arazoak.
- 5n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak erabagiko dauz egin bear diran lanak zeintzuk izan eta berak lan orreik egin bear dabez bazkideak (akademikuak) zeintzuk izango diran.

- 6n. ARAUA: *Zenbakidunak* eta *zenbatu-ebak*, Zuzendaria izan ezik besteak, Bikoteetan eratuko dira eta bikoteak urtero aldatu. Bikote oneik eratzea be Zuzendaritza-Batzordearen zeregiña da.
- 7n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak Bazkide (akademiku)'ren bateri lanak ezarten dautsozanean, ezartzaillen ustez lan orreik egiteko diru-eralketak bear ba'dira, eralketa orreik Bazkintxea (Akademia)'ren Kutxatik ordainduko dira.
- 8n. ARAUA: Ez *zenbakidunak* eta ez *Zenbatu-ebak ez* dabe euskal-arloko lanik argitaratuko, Zuzendaritza-Batzordeak onartu barik.
- 9n. ARAUA: Bazkintxea (Akademia)'ren idaz-lanak bere izenagaz argitaratu eta ondo ikusteko lekuan ipiñiko dira, lan orretan Bazkintxea (akademia) osotzen dabenen izenak, eta oar edo itzaurre baten agertuko dira lan orretan era berezian lan egin daben bazkideen (akademikuen) izenak.
- 10n. ARAUA: Bazkintxeak (akademiak) egingo dauan lenengo lana . iztegi idatzia eta idatzi-bakoa batzea izango da, orrelan lenengo erabilten diran itzen iztegia argitaratzeko, eta gero Euskera bizkaitarraren iztegi osoa.

### III ATALA: Arduradunak

- 1 In. ARAUA: Zuzendaritza Batzordea, Zuzendariak, Idazkariak eta Diru-Zaiñak osotuko dabe.

#### Zuzendariaren zeregiñak oneik izango dira:

- 1.º Batzarretara deia egin eta oneik zuzendu.
- 2n. Batzar-agiriak izenpetu.
- 3n. Bere onartzeaz ordainketak baimendu.
- 4n. Isilpeko Araudia zaindu.
- 5n. Batzordearen kideko diranen izen-artzeak eta kentzeak eguneratu.

#### 1.º Idazkariaren egitekoak oneik izango dira:

- 1.º Batzar-Agiriaren isilleko ta benetako liburua.
- 2n. Batzar-agiriaren liburu izuna.

# EUSKEREA

## 2n. Idazkariarenak beste oneik:

- 1 ° BB'tik artzen diran barri-emoteak batu eta zaindu.
- 2n. BB'ri zuzenduak batu ta zaindu.
- 3n. Bazkideai (akademikuai) egindako idazkiak eta eurakandik artuak batu eta egindakoak berak egiñak izan daitezela.
- 4n. Iru agiri-moltzo oneik eguneratu eta euren aurbideak egin.

## Irugarren idazkariaren egitekoak izango dira:

Bazkintxea (akademia)ren bazkide guztien izen-artze eta kentzeen liburua eguneratu, atalak oneik dirala: *Zenbakidunak, Zenbatu-etzak, egokituak.*

## Diru-zaiñaren zeregiñak oneik izango dira:

- 1.<sup>0</sup> Erakunde onen ondasunak edo kutxea zaindu.
- 2n. Diru-eskuratzeak eta ordaintzeak egin, ordaintzeko Zuzendariaren onartzea lortuta.

## IV ATALA: Batzarrak

- 12n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak iru illebeterik bein egingo dau batzarra, Zuzendariak egokitzen daukan egunean.
- 13n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak batzar berezia egingo dau, Zuzendariaren ustez egin bear danean.
- 14n. ARAUA: Iru eratako bazkide (akademiku) guztiak batera dirala, batzar osoa egingo da urtean bein.

## OROI-TXINPARTAK

- Aita Santi Onaindia'k liburu arrigarri bat argitaratu dausku.
- Oraingoan bere bizitzako gomutakiak, "memoriak" dira.
- Santi Onaindia'ren bizitzeak zer-kontau asko eta jakingarriak daukaz.

—Idazleak arazorik sakonenak eta jakingarrienak zeatz, zorrotz eta minpeko barik aztertzen dauz: bere sendia, lekaide-arteko giroa, gudaldiko gorabera ikaragarriak eta espetxeko egoera latza, bere idazle-lanak eta argitaldiatarako diru-iturriak, euskereari buruz erakundeak izan daberen jokabidea, personakaz eta erakundeakaz izan dauzan artuemonak: Euskaltzaindia, Euskerazaintza, Koldo Mitxelena, Iruñarrak, Bedita Larrakoetxea, Jakin, Kardaberaz'tarrak, Olabide, Euskera Batua, Barandiaran eta Lekuona, Xabier Peña, Enbeita'tarrak, EGUNA salatzen, eta abar...

—Aspaldiko Euskalerriaren giroa ta arazoak bizi izan dauzan edo-nork arduraz eta atsegiñez irakurteko liburua, benetan.

- 15n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordearen batzarretan bost bazkideak izango dira eta ez besterik, abots eta autarkidun; batzar erreitara joan leitekez *zenbakidunak*, baiña abosdun baiño ez dira izango.
- 16n. ARAUA: Batzar Osoetan ez dira aztertuko zaingo-arazoak baiño.
- 17n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeak urte birik bein izango dau barrizatzea, orretarako *zenbakidun amabostak* bakarrik autarkidun dirala.
- 18n. ARAUA: Zuzendaritza-Batzordeko arduradunak barriro aukeratu leikez, baiña ez dagoz jarraitzera beartuta.
- 19n. ARAUA: Araudi au laburtzeko naiz luzetzeko naiz aldatzeko Zuzendaritza Batzordeak egingo dau aztertzea eta erabagia artzea.
- 20n. ARAUA: *Zenbakidun* bazkideak zin-itza emongo dabe erakundea B.B.B.menpean dagoala iñoz ez agertzeko.

Bilbao'n, 1896'ko bagillaren 30'ean.

Arana eta Goiri'tar Sabin

Izpizua'tar Faben Landio'tar...

Agindua: Il onen 10'erako bialdu B.B.B.'era araudi onen ieki bi; bat izenpetu eta Bazkintxera itzultzeko da eta bestea B.B.B.'aren eskuetan geratuko da.

Agiri au agiritegian zaindu beite.

## OROI-TXINPARTAK



## D. KLAUDIO'REN GOMUTAGARRI

### ELORRIO MAITE

Bai, eskerrak eta eskerrak zuri, Elorrio'ko erri maite orri. Eskerrik asko, aín seme aundia emon zeunskun orri!

D. Klaudio beti Elorrio'ko seme agertu zan. Bere erria maite-maite izan eban, bere erriko mendi, baso, zelai eta guzti. Erreka, txori, iturri, lore eta baserriak be bai...! Elorrio'ri itz egikeran, olerkarí agertzen zan. Elorrio'ri buruz idatzi eta idatzi egin eban, baiña askoz geiago zan bere biotzean eroan ebana eta beste bizitzara eroan ebana. Elorrio'ko gauza guztietatik, ango jendea zan batez be maite ebana. Beronen zintzotasuna, beronen kristautasuna, bertako sendi edo familia ederrak. Elorrio'ko jende-motaren agergarri eder bat izan genduan D. Klaudio!

\* \* \*

### SAN ANTON'EN

San Anton'go Parrokira D. Klaudio etorri zanean, artean guda zítala amaitu barik, benetan igarle adoretu eta sendo bat eldu jakun! Gosez bizi ziranentzat, ez-eukientzak egiazko igarlea; erbestean edo espetxean senideak eukiezanentzat, igarlea; Ebanjelioaren egarri, maitasunaren eta itxaropenezko berben gose-egarri ziranentzat, benetako igarlea. Aren Ebanjelio iragarri bearra San Anton go Meza nagusietan! Eliza jendez gainezka, batez bere gizonez beterik, ateetaraíño eta kanporaíño...

Eta beraren abots ederraz eta aundiaz, megafonia barik, Kristoren berbak, Kristoren alegi edo parabolak, barri-barriak lez entzuten ziran.

Eta berealaxe salakuntzak eta salakuntzak, multak eta díruzigorak, ogei, irurogei, eun... batek badaki zenbat izan ziran. Baiña, beti aurrera, bíldur barik eta ikara guztien gainetik. "Kristo'k itsutu ninduan beraren berbak zabaltzeko", esaten eban D. Klaudio'k.

\* \* \*

### UMEAK ETA GAZTEAK

D. Klaudio'k eten barik iragarten eban Jesukristoren Ebanjelioa, jende guztientzat, nagusientzat eta umeentzat.

Nok jakin zenbateraíño maite ebazan umeak, eta zenbateraíño umeak bera maite eben. Katekesi-emoille guztiz argia eta trebea izan zan, leenengo Gorlitz'ko umeen Sanatorioan eta San Anton'en urrengo.

Eta nok neurtu legiogazteen artean egindako lana? Ainbat bokaziño sortu eta loratu ziran Seminariorako, mixiñoetarako, mojararako edo fraídetzarako. Zenbat garean abade D. Klaudio'ri eskerrak!

\* \* \*

### IZLARI TA AUTOR-ENTZULE

D. Klaudio izlari bikaiña izan zan, katekesi-emoille ospetsua, beartsuen aíta eta naigabetsu guztien konsolatzaillea...

Eta autor-entzule lez, zer esan? Eundaka eta millaka joaten jakozan San Anton'dik, Bilbo guztitik, Bizkaiko erri askotatik. D. Klaudio'rengana etozan euren arimentzat pakearen bila. Eta beste abadeekaz autortu gura ez eta, D. Klaudio'gaz, bai, patxada ederrean. Orregaitik, eriotzako orduan, zenbat ezkerti politikoak eta abarrek: "Abaderik ez dot gura, abaderik ez ekarri" esaten eben. Baiña, D. Klaudio? Bueno, ba, D. Klaudio, bai, eta berak zerurantz bíaltzen ebazan.

### EUSKERAZALE

Azkenik, D. Klaudio gure euskera maitearen zabaltzaille izan zan, lan eta lan egiñez. D. Klaudio'ren biotza euskereak betetan eban. Erderaz oso ederto prediketean eban D. Klaudio'k, baiña euskeraz... zein gozo eta ederra zan aren euskera, bere Elorrio'ko euskera.

Komillasko Seminarioan, ixil-ixillik eta ezkutuan, euskaldun batzuek az batera, bere euskera maitea landu, edertu eta obeto ezagutzen aalegindu zan, olerkiak egin eta itz-lauz idatziz, eta orri eskerrak, gero euskaldunen apostolua izango zan.

San Anton'en euskeraz berak emon eban leenengo meza, 1964-garren urteko urtarrillaren lenengo domekan, gotzaiñaren baiñen barik. Zalantza barik, Euzkadiko lenengo euskal meza izan zan. Biibo'ko euskaldun guztiak biotz-xamurtu ziran, eta San Anton'go eliza jendez gainezka ler egíteko zorian ikusten zan, eta eliz euskal abestiak zeínen zoli ots egiten ebea, orfeoi edo abesbatz aundia izan bailítzan.

\* \* \*

### BERBAZ ETA IDATZIZ

D. Klaudio'k barru-barrutik ezagutzen eban bere euskal jendea! Aldi bakotxean, jazoera bakotxean, egoera bakotxean, zeínen ederto jakiten eban zeatz-meatz berba egiten. Euskaldunen alkartasuna, batasuna, euskaldunen arteko maitasuna zeínen biziro eta gartsu agertzen ebazan...

Ez, baiña, Bilbo'n bakarrik... Guda ostean, gure Euskalerrí errukarrián, ia ezer ez zan euskeraz prediketean. Bizkai'ko euskaldunak ez eben entzuten Barri Ona, Ebanjelioa... Eta D. Klaudio'k aderez eta eten bage, euskal eliz guztietan, aundi eta txiki guztietan, euskeraz argi eta garbi egiten eban berba, eta millaka eta millaka euskaldunek euren sinismena indartzen eta sendotzen eben.

Eta Jainkoaren Berbea erein eta idatzi, batez bere ZER aldizkarían, eta baita líburuxka batzuen bídez bere, "Amets eta egin" izenekoaren bidez, esate baterako.

"Galburuan" ainbat olerki xamur eta ainbat euskal abestien itz ídatziz ebazan. Beraren organu-jolea zan Arturo Intxausti'gaz askotan lan egin eban, adibidez, gabon-abestiak onduten, esaterako "Polít ederra", edo Bizkai'ko Zaindari dan Andra Mariaren ereserkia: "Begoñako Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari...". Eta Balendin Berrio-Otxoaren bizitza, seireun eta írurogeita bi bertsoetan idatzi eban, eta abar eta abar.

\* \* \*

### OROIGARRIA

Barríro, Elorri'ko erríari eskerrik asko! Jainkoari eskerrik asko! Eta gorde daigun D. Klaudio'ren ituna edo testamentua beraren maitasun biak, Jaungoikoarenganako maitasuna, Kristo'ren maitale sutsua, Elizaren maitale eta serbitzari; eta beste maitasuna, Euskalerrí biotz-biotzez maite izatea. Benetan maitasun bat baiño ez eukan: Jesukristo maite eban, euskal biotz sutsu batez.

Egitan merezi dau egiten dautsoen omenaldia, San Anton'go atarian brontzeko soin-enborra ipiñiaz. Beti iraun dagian D. Klaudio'ren orofimenak San Anton'en, Bilbo Zarrean, Bilbo eta Bizkai eta Euskalerrí osoan!

ANASTASIO OLABARRIA

# OSASUNA

## OSASUNA, GURE ONDASUNA (I)

Gure osasunen buruz, gaur zerbait gura neuke agertu, idazlan onetan.

Badakigu osasuna garrantzi aundikoa dala gure bizitzan, ona ba'daukagu pozik agertzen gara, txarra ba'da, beti negar antzean gabiltz.

Iru gauza daukaguz jente geienok asko maite doguzanak: OSASUNA, DIRUA eta MAITASUNA.

Oietatik, geienentzako bear-bearezkoa da, OSASUNA eta lenengoa. Besteok onak dira, baiña BIGARRREN maillakoak.

Diru barik ezingo gara bizi, zergaitik bear dogulako JATEKO, bizitzeko, au da lenengo lana bizigaren guztientzako eta bear dogu JANTZITEKO, etxea eukiteko, semei jaten emoteko ta abar. Beste modu baten esateko, gitxi edo asko bearrezkoa da dirua.

Maitasuna be bai, gura ba'dogu ondo bizi, gure bionta maite izateko jaioa da eta Jainkoak ipiñi dausku orretarako.

GORROTOAN eta bata-beste ezin ikusiaz bizitea mundu onetan izango litzake, INPERNUAREN atezia?

Gure OSASUNA, ona izateko bizitza guztian OARBatzuk zaindu bear doguz.

Jainkoak emon dauskun bizia, bera ondo zainduteko edo kontuz ibilteko, ez MAKALDUTEKO.

Askotan, gu konturatu barik geure buruaren aurka gabiltz egiteetan, OKER ibilten garala.

Osasuna MAITE izan bear dogu eta ZAINDU asko, edo TXOKO guztiz POZOIÑAZ beterik dagozanak urte guztian, baiña ala-tabe NEGUAN. Toki orreik arnasara sartzen dan guztia KUTXADURATU ta dago. Orduak an EMON ezker ezin leikena da osasuntsu bat egotea.

### ZELAN SAINDU OSASUNA

Gertaera eta egiteetan gure osasuna zaindu geinke: Janean, edanean, lantokian, jolasetan eta gure ibilteetan. Ez sartu ARRISKUETAN.

Arrizkuan sartzan danak, bertan bere burua UKATZEN dau. JAN eta EDARIAK bearrezkoak dira gure SOIN edo, gorputza AZI deiten sendo, gogor, indartsu eta abar.

Orretarako ez dozu egin behar GEIKERIRIK ez edatean eta ez janean; gauza bi oietan ez egin NAURRIBAKORIK.

Gangarkeri orreik egunen batean NABAITUKO dozuz zure gorputzean, ta orduan izango da BERANDU, gizona, gizonen moduan ibilli ezker zeure ONERAKO izango data.

Geu gizon-emakumeok, askotan abereak baiño gaiztoagoak gara jan eta edatean.

Askotan ikusi doguz abereak, bein NAIKO jan edo edan ezker MUZTURRA altzau, eta ez dabe geiagotai eta alde egiten dabe.

Geu gara nai ta beteta egon, bein ta berriro joaten garenok geiago jatera eta edatera.

Ori burubakoa izatea da, NORBERARENTZAT KALTEGARRI dalako.

### KUTXADURATO TOKIETATIK ALDE EGIN

Gure uri aundietatik eta txikietatik be bai URTEN beste EGURATS edo GIRO obeagoa dagon tokira.

Edozein uritan TXOKO asko daukaguz edantegi, edo TXOKO guztiz POZOIÑAZ beterik dagozanak urte guztian, baiña ala-tabe NEGUAN. Toki orreik arnasara sartzen dan guztia KUTXADURATU ta dago. Orduak an EMON ezker ezin leikena da osasuntsu bat egotea.

Olako baten egonda gero, orain dala urte batzuk, ezin neban arnasa artu eta jateko gogua kendu jatan egun aretan.

Neguan leku orretako leioak ez dira zabaltzen eta ango EGURATS edo giroa aitzoagaz ebagi leike.

Giro ori gure birikientzako, askena, kaltegarria.



## **DROGEA**

Gaurko gazteak eta ez gazteak, kontuz ibilli bear dabena da DROGEA.

Urte bi onetan sarritan ibilli naz GAISO etxeetan, eta an ikusten diranak oso MOTSAK dira eta geienak edo asko beintzat gazteak ala-ta- be, DROGEA gaitik (bai HACHIS eta bai edana gaitik).

Gure gorputza da LANDARA bat lez.

Landarea sartzeko lenengo lurra astindu egin bear da edo LANDU.

Gero ZIMAURRA bota, eta legor dagonean, lurrera bota ura.

Lurra, ura ta eguzkiak gaiñekoa egiten dabe, landara ona azi, FRUITU onak emon eta danok pozik.

Egin daigun beste ainbeste gure soiñagaz.

## **SAGARRA TA KOLESTEROLA**

Gure errietako igaleen izena LATERATIK dator, eta beraren izena izan zan "MALUM".

Sagar-mota geienak datoz "MALUS POMULA"tik.

ZUAITZ oneri esaten dautsogu guk sagar-ondoa eta bere igale ederra, SAGARRA.

Igale au zabaldua dago ludiko txoko guztietan, geien zabaldua dagoen zugatza da.

Bere MAMIN ederra izan leike GOZOA, GARRATZA, MINGOTZA, baiña beti sagar-muiña eta otz-garria gure samearentzat.

Mota askotako sagarrak dagoz, guk esagutzen doguz errege-sagar, golden-sagar, ... gozamin-sagar sagardua egiteko.

## **OSASUNA ETA SAGARRA**

Bera da LIBRAGARRIA, BIGUNGARRIA ta ARIN-

KERIBAT, oso indarrezkoa, kementsua, eta jaten dogu egosita, erreta, eta gordiñik be bai.

URDAILLEAN garraztasuna daukientzat oso ONGARRIA.

Laster arintzen dau gure urdaillean dagon FLORA BACTERIANA, ori da gure esteetan eta urdaillean dagozan MINGOTZAK kentzeko. Baita egiten dira sagarren OSABIDE edo SENDABIDEAK.

Sagarragaz egiten dan EDARIA oso pozik sartzen dogu Udabarrian eta UDAN, oso oskirria dalako eta gure sameak orduan ederto artzen dau. Beste aldebera, alkohol gitxi dauko.

\*

## **SAGARRA OSAKI BAT DA**

Oraintzu TOULUSEKO osagille batzuk aurkitu dabez IGALE onen ONGARRIAK.

Begiratu: Gure gorputzarentzat BESTE OSAKI BAT DALA diño.

Zergaitik? Gure odoleko KORESTEROLA gitxitu egiten dauako.

Gitxitu edo JATSI egiten dau.

Zer dauko ba? PEKTINA DAUKA.

Bere ORMA CELULARETAN Belar-Izpiak daukaz eta GAI orrek gure Janaria arindu, bizkortu, egiten dau bai urdaillean eta be esteetan.

Bere MAZEAK 15 % PEKTINA daukaz, orretan bere GAIÑETIK dagozanak dira: Limoia eta Naranja.

Onen antzera gure EGOSTEAN laguntzen dauz-kuenak dira: Gari-buruen-azala ZAI edo BIRZAI esaten. doguna.

Abantalla dauko emengo salgarrak ain ongarria dalako.

Metabolismoa aldatzen dau. Ezate dabe osagille orrek sagarra dala guretzak igalerik onena.

ETXEBERRIA'ta ISIDOR

## LUIS AROSTEGI, OLERKARI

Olerkaria ez da adimenezko auskada bakarrik; bai, orrez gain ba-dau eder-atzegiñaren gozotasun ezta be. Noiztik noiz baita goi-maillara eldu dan edo eldu ez dan ezpaia be. Adimenezko ikuste biziari orduan, otoitz bikaiñean lez edo, birloratze ta zorraldia deitzen dau-tsoe. Ortaz, bada, olerkariak eta mistikuak mailla bardiñean? Ezagutzen dira olakoak, eta olan diño sikologu batzuk, olerkari, margolari naiz musikalariak, arteaz lilluraturik bizi diranak, eta iltean be Jainkoaz barik, arteaz aurkitzen dirala uste dabenak, ba-dirala antze-munduan.

Extasis bat ei da. Leun edo zakar dana, oizko bizi-eratik gorago garoazana, goragoko izate batera jasoten oi dauana. Edertasunak dagi ori, ta olerkia ederraren zantzu bizia dozu, ez jako moztu bear bere goi-indar berezi-berezia, gar bero ta goraldi aintzatsua. Olerki, poesi bat idatzi, irakurri naiz entzutean, arimea indarka, gora naiez dagoala begitanduten jaku; neurtitz bat, estrofa bat naiz bertso giar bat aztertzen edo-ta ausnartzen gagozanean, zerbait jazoten jaku itzez adierazo ezin daikguna.

Beste gauza batzuetan be ikus gengike au. Mendira joanik, adibidez, or pagadi itsua igarotean, gorosti erdi-igar bat begien aurrean: orri barik, adar geienak ustel, ezpalez beterik sustraiak agirian. Illik ez ete? Baiña ez, ez dago ilda: ezker-aldera or kimu joria gorantz naian. Oraindik bizi da gorostia. Bir-loratua geratzen jat laguna. Zer jazo jako? Gaiñez egin dautsu arimeak. Ezin dau itzik atera. Aren zor-aldia, luzaroko zor-aldia... Ezin dot aurrera eroan...

Gizasemea.—Mungia ta Plentzi bitartean dagon Gati-ka erritxoan jaio zan Luis Arostegi Ganboa, karmeldarra, 1939'ko urtarrillaren 21'an. Ikas-zaletasunak joa gazte-gaztetatik, eta eleiz-deia somatuz barruan, Larrean lenengo ta gero Nafarruako Billafrankan osotu zituan bere leen-ikasketak. Gero, Larrean egin eban bere karmeldar profesa 1956 an. Jarraian, giza-ikas uete bat Markiña'n egiñik, Filosofi ta onden inguruko asi-masiak Gasteiz'en burutu zituan, iru urtez.

Buruz argia ta zentzunez errotsu etorrelako, nagusiak Erroma'ra bialdu eben 1960'an. Emen ikasten dau Teologia bost urtetan, 1964'an meza barria abestu ta ondoren Teologian Lizenziatu titulua jadetxirik. 1965'an, Larrea'n egotaldi laburra egin ondoren, Panama'ra doa, emen Erlejiñoen Edestia ta Teologia erakutsirik Ikasgu Katolikuan, opor-aldietan batez be, Ipar-amerikan, ingelera ikasten, egotaldi politik egiñaz.

Kultura sakonagoa jadetsi gurarik, 1971'an Milan'era doa Filosofia ikasten, eta Jesus'en Biotzaren Unibertsitatean artu eban Irakasle (Doktor) tituluian Filosofian. Orrez gainera izkuntzak ere ikasi zituan, lenengo (esan dogu) inglesa Ipar-Amerikan, eta gero Austrian aleman eta Montekarlon frantsesa. 1973'tik aurrera Iruña'n daukagu karmeldar gazteai Filosofia ta Teologia irakasten, aldi berean ango Teologi-Ikasgu nagusian erlejiño Filosofia be emonik.

Azken urteotan emen Zornotza'ko "Karmelo" Ikastetxean, beti gogotsu, irakatsi izan dautse bertoko gazteai, euskereari dagokion lekua eskiñiaz. 1975-1961 bitartean bertoko nagusitza egin eban, eta sei urtetan, 1981-1988 Probitzi Kontseilluko lankide. Azkenengo karmeldar Batzar nagusian euskal Probitzikiko nagusi aukeratua izan zan.

Idazle ugaria, euskeraz eta erderaz. Ainbat lan daukaz euskeraz "Karmel"-en eta "Oleri"-n. Erderaz, Madrid'eko "Revista de Espiritualidad" deritxonean idazten dau geien batean.

*Olerkari.—Ikasi* ta irakatsi ezta, egi-egiaz, modurik egokiena olerkigintzan ekiteko. Orretan ari danak nai ta naiez bere izatearen barrenengo zokoan gorde ta bakar-giroaren leuna izan bear dau. Kanpotiko ixil-laguntza barik nekez arrotuko dau sustrizko neurtitz-lan bat, benetako poesi-kopla danik. Txori illaren egaz nimiñoa bai, ez ostera poesirik.

Arostegi ezta egazkada txikiz naikotzekoa. Garaiagoak opa ditu, eta orretan alegindu oi jaku. An eta emen ikasketa gogor artean bizi arren, Markiña'n esaterako, ikasle zala, izenez eta idatziz maite eban Virgilio ta aren olerkiak ikasi ta aztertzen ebazan. Geroztik, barriz, zintzo saiatu izan da, al izanik beintzat, euskal olerkigintzan. Panama'tik zala, Ipar-Amerika, Kolonbia ta Guatemala tik ebillela polito ekin eutson bere barne-deiko lanari. Naizta gerosgo argitara emon, orduko sorpenak ditu "Poema amaitu bakoak" deitutako olerki liburuxkan datozenak. Pitxi eder bezela, aldean erabilli zituan eurok.

Urteak igarota gero, Milan'en aurkitzen zala, bidaiez bota eustan olerki mordo bat nik argitaratu negiozan. Erderaz egozan, eta nik sartu nai ez erdel argitalpennetan. Au idat i neutson: nai ba'eban neuk itzuliko nebazala euskerara, ta argitaratu. Euskeraz jarri neutsozan, bada, eta "Poemas Inacabados-Poema amaitu bakoak"

liburua argitaldu. 39 olerki daukaz. Kolonbia'n, ango zelaia dakaz gogora; Guatemalan Solala, Mexiko'n Guadalupe, Dallas'en ango zingira 1965'an, Dilley Texas'en...

Bultzian dabil eta au ikusten dau tren-barru ariñetik:

Begiak eta eskuak, jasorik,  
agurka ezkututzen diranean,  
tximistargi-abeak gelditzen dira  
izpar-izuak eroan eta itxiaz,  
eta bide bakarra erakutsiaz.

Txirrinka ta bideak  
geratzen dira piper.

Ez dirudi zuzen min-aztea,  
eroan eziña baita begi-agurra.  
Baiña agur eñi bear maitatzeko,  
begirada ixillez jarraitu bear  
tximistargi-abeen igarotea.

Bedar jaikien arteko bidioiak  
itzuli bageko joana iragarten.  
Tximistargi-abeak bakar-bakarrik  
joan eta etorriekin  
eta bularrak egapetzen dauanakin  
begietatik biotzeraiñoko  
itxaro-errenkada dabe marratzen.

Onakoxea dozu geienbat Luis Arostegi-ren olerkia.  
Jario zabal sakonekoa, bai ordukoak eta bai arrezkero  
asti-uneetan ondu ditunak be: J. Zaitegi k esan bi eba-  
nez, egiazko poesia.

Liburutxu orren itzaurrean, au autortu euskun: "Bein  
baiño geiagotan amaitu nai izan ditut olerki oneik.  
Bizitz-une dira, oso-oso geureak nai geunkezanak; izate-  
-ondoan, baiña, kimu edo erdi adierazo bakarrik egiten  
jakuzanak. Eurretan onena amaitu bako ori dala deritxat  
orain; iges doan ori, samatik oratu ezkeru, ilgo litzate-  
kena. Zeru bat bat eta lur barri batez oiudaragiskuna.  
Eta, beti be, olerkiak eztira bizitza, bizitz osoa, ezta

beraren ardurazkoena be. Doguzan gauzetatik beñena,  
ain zuzen, noberak be ozta-oztan daki".

Garai onetan asko idatzi dauksu, "Karmel" -en eta  
"Olerti"n bereziki. Azkenengo "Olerti" -n oneik emon  
euskuzan: "Aldiaren nekea", "Askatasun unea", "Urta-  
rilla", jatorrak; eta itzuliak, Thomas Merton'en "Co-  
bre'ko Andra Maruari abestia", "Naigabeak", "Arro-  
tza", "Abestia: Billa ba'zabiltz... Geldiro geldiro...". Eri-  
txi emoteak be eder jakoz, Lauaxeta, Sabin Muniategi  
ta besteak aztertuz. "Karmel"-en datoz Hoelderlina  
alemanari egiñiko beste itzulpen batzuk; aspaldi dabil  
gaiñera onen olerki osoak euskeraz ipiñi nairik.

Txasta egizu, sagar gozo iduri, beste au be, "Aska-  
tasun unea":

Kanta, euri, leun ganean,  
kanta zuk, aize,  
eta pagoai irribarre eragin,  
ardiak ira artean mantzo,  
jan edo begitu dagiela.  
Kanta askatasun une au  
une bat baiño ez da ta...  
Kaltebako lagun onak,  
adiskidetsu zagoze inguruan.  
Ez daustazue berbarik egiten,  
zuzmur ta doiñua bakarrik  
ixiltasun narean.

Onakoxea da, aundi ta sakon, Arostegi-ren euskal  
olerkia. Rebestekoen lanak euskerara biurtze berebizi-  
ko eztena jaku nobere sorpenak be gurentasunez jazteko.

Urtarrilla deritxonaren azken estrofa: "Urteak egin-  
go dau gero —bere bestiko bira—, eta guk negu bio-  
tzean barriro asmauko dogu —urte-birak lortzen ez  
dauan— itxaropen izenbakoa". Izan bedi orrelaxe.

AITA ONAINDIA

**ZER**

**ALDIZKARIA**

- **ILLEROKOA** [MENSUAL]
- **BIZKAIERAZ IDATZIA** [EN BIZKAINO]
- **ERRI-JAKINTZAREN GAIK** [MATERIAS POPULARES]
- **IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK** [LECTURA FACIL]
- **ARAZO SAKONAK AZTERTUTA** [ANALISIS DE TEMAS]

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

de Larreátegui, 14 - 2.0 - BILBAO-1

## OSASUNA

"Deia", 88-VII: "Opini3n del lector" en Josu Urrutia'k, erderaz.

Al Consejero de Sanidad. Sanidade, Osakidetzako Aolkulariari.

Aolkulari jauna:

Ez gixajokeriarik egin Euzkadiko ondartzta ta bazterretan, presergailu, gordegailuok banantzen.

Gordegailuok, zuk ondo dakizu, seksukeri-gaixoetatik ez dabe iñoz zaindu: ez orain eta ez len be.

Euzkadiko gazteok bear dabezenak, ez dira ez gordegailuok; iñor aitatzen ausartzen ez dan etikazko lege, bizibide zuzenak baiño.

Bestetara: guztion diruaz egiten dozuen zabalkunde orregaz, seksukeri iguingarria, erein bakarrik egiten dozue.

Ba, izadia, natura, jakintsua da. Eta txarto erabilten badogu, ordainak artzen daki. Eta seksukeria onek, len sifilisa zabaltzen lagundu ba eban eta orain SIDA ekarri badau, biar beste kalamidaderen bat leporatuko dauku. Zeuk ikusiko dozu.

Zuek gaztediari, gizarteko ekanduen iraultza egin gura dautsazue. Baina gaztedia ori, ez dakizue nundik nora eroan. Eta gero, ondorenak zuritu egin gura dozuez, preserbativo edo gordegailu orreik zabalduaz.

Barregarrikeriarik ez, kontseilari jauna!

MAITEA'k

### SUA

Sua.  
Eguzkiaren seme  
agurgarria.  
Oraindik  
aintziña ez dala,  
gure basetxeetan  
otoitzak egin ta,  
ogertzekoan  
sukaldea jazotzen zan  
egur lodi txingartuak  
erdian jarrita  
autserre artean  
estaltzen ziran  
txukun.

Sua.  
Garai bateko  
gizonaren  
ondasun gurena;  
gurtasunez  
egunik egun  
aldi luzez  
iraunazia.

Esakunak diñoanez:  
"Sua batzean  
sukalde garbian  
aingeruak pozez  
sartzen dira etxean".

MUNIATEGI-tar SABIN

### ORBELAK

Betirako gura neukez ikusi lurpera  
bide zaarreko basatzara eroriak  
naasmen izuan dabilkidazan oroitzak,  
ainbat urte galdurikoen orbel oriak.

Arima sokondo guztietan dabilkidaz  
laino arreen intziria baizen itunak,  
euren joan, geldoan nire penak audituz  
ene koldarkerien a ize golpe lizunak.

Neure eskutuetara naizen bakoitzean  
olatu moltzoak ditut bi begietara,  
golpeka ta golpeka lauso gaziz itoaz  
amets eroan lo ditudan milla enara.

Kolko barruan dabilkidazan mamutzarrak  
orma zaarreko arrakaletan barrena.  
Garbien dodanean neure larrosen intza  
moztu daroaste pozaren gara lerdena.

Arin oridun oroitzta madarikatuak  
neure arbola bilozaren orban izurrak,  
adarrik adarreko ta orririk orriko  
frutu ustelduen lillura-murgoi apurrak.

A. BIDAGUREN



## BOROA'KO KEPA DEUNA



Ainbat txadon edo eleiza ta basatxonu dira Bizkaia'n eta bai Euzkadi guztian bere, Kepa Deunari zuzendutakoak, deun kementsu orren jabetzan diran kabi deunak eta, Zornotza'ko lurraldean auzunerik zabalena dan Boroa'n be Kepa Deuna dabe goi-agintari edo goi-jabole.

Auzune zabala esan dogu eta, alantxe da auzune au, Galdakan'ko lurraldeaz mugatutzen dan "Kortederra" basetxe ezagunetik asita ea Zornotza'ko erri-barrurarte iru aneineurkin (kilometro) luze ditu eta ia aneineurki bi zabal, dan-dana basetxe ederrez orniduta, Bilbo'tik Donosti'rako bitxabalan alderdi bietara, gaur-egun basetxe orretako ainbat utsik edo erdi-utsik be ikusiten dira, naita geien-geinetara berebillez igoteko bide zabalak bere ba'dituen. Azken-aldiko urteotan ainbat lantegi, ez ain aundiak baiña ainbat, egiñak dira auzune zabal orretan, bertako ainbat seme-alabentzat lantoki izateko.

\* \* \*

Durango aldera edo Gernika'ranta joateko, auzune ortatik igaro bear da eta, gu be ez gara gitxien bertatik igaroten garanak, baiña, urte asko ziran Kepa Deuna'ren basatxonuan eta inguruan egon gintzazala eta, benetan zirriada aundia zuzmau genduan geure barrenean, eleizatxu orren apainketak ikusi ondoren. Erti edo arte aldetik begiratu ezketiño, ez dau garrantzirik basatxonu orrek, oso bakana dalako, baiña, bertan eginbarri diran apainketak auzokideak, Udal, Aldundi ta Euzko Jaurlaritza'ren laguntzaz, ikusgarriak dira:

Barruak, orain oitu dan lez, arri-utsean, garbi ta txairo jarleku apaiñakin ordiduta eta, teilletua apindukeran, beren iru-aldamenetara lenago euki ez ebazan

eleizpe edo arkupe zabalak arri-landuz beak eta ormak dituala. Benetan lan bikaiña boroarrak egin dabena.

\* \* \*

Lenagoko basatxonurik geienak lez, Kepa deunaren onek be bere aldamenen eleiza —zaiña edo lenago "Ermitaiñu"-etxea dau, beratan ikusten dan lez, aldi bitakua da, orain be batobat bizi dana, baiña, tamalez eleizea apaindu dabenean ez dira beragaz gogoratu eta, basatxonu apaiñaren aldamenen etxe ori apaindu barik ikusiteak ez dausku zirriada onik egin, batez be inguru aretan egiñak diran beste jolas aorketak ikusi ondoren. Esate baterako, zelai-une orretan egin barriak diran igiritegi, neurriko "proba-lekue lau edo bost neurriko arriakin, bolatoki ederra ta abar Anaitasuna izeneko batzarretze polit bat eta guzti. Leku apaiña ta osasungarria benetan.

Kepa Deuna, Boroa'ko goiunetxu baten aurkitzen da, Boroa-gana edo Arria-ganean bitxabaletik aneineurki bi ingurura, bertaraño edo geiagoko bitxabala debela. Igande guztietan eberdateko amaikatan ospatutzen da meza, Larra'ko karmeldar lekaideak emonda, nai-ta gu bertan egon gintzazanean, Ekaina'ren 29, Kepa Deuna'ren egunean, eberdiko amabietan ospatu eban Aita Paben Larra'ko karmeldarrak, eleiza guztia notiñez betarik zala.

Benetan gomutagarria zan ainbeste urte garrenean eleizatxu orretan jaupa edo meza entzuten aurkitzea! Zenbat ikusgarri eta gomutagarri doguzan gure Bizkai ta Euzkadi maitegarri onetan!!

ALTUNA'tar JOSU



Boroa'ko Bolatokia ta Ikastola

## ¡ZAINDU!!

Lurgintza arazoari buruz, Madrid'en argitaratzen dan "AGRICULTURA" izeneko albistarian, bere 673'gnekoko. zenbakian (1988'gnko. Uztailla-Dagonillakoan) dei bat egiten jake Espaiña'ko asmatzalleai izenburu onegaz:

"En defensa de nuestra lengua: CARTA ABIERTA A LOS INGENIEROS ESPAÑOLES".

Dei orretan esaten da Zientzia ta Teknika barruan aurrerapen itzelak egiten dirala ta, ori, egunean-egunean. Beraz, arazo orretan danok gagoz sartuta ta parrastakan jatorkuzela ezaugarri ta teknika barriak eta, Barri askotan, itz egokiak aurkitu eziñik.

Gero diño, geure izkuntza (eurena) danok zaindu bear dogula ta *erderakadak baztertu*, izkuntza al dan garbien eutsiteko. Orretarako alegiñiak egin bear doguzela *itz barri ta egokiak ezartzeko*, euren "Real Academia Española" naikoa ez dalako.

Onegaitik, bakoitzak bere arloan daki zer bear dauan eta, asko ikasi ta ikusita daukan ezkerro, itz barri ta egokiak asmatu leiz, au da: itz barriak asmatu ta ezarri.

Au dana egiteko IZEN-SAIL BATZORDEA esarri dabe ta ganera asmatzaille (inkinñeru) guztien laguntasuna eskatzen dabe, lan gogorra, neketsu ta luzarokoa dalako.

Gai onetan espaiñeraz itz egiten daben ego-amerikarrak aurreratu dira ta kanpotar itzak bastertuaz, euren ordez, beste espaiñar itz egokiak asi dira sartzan.

Esaterako, "broilers" en ordez "pollos parrilleros" ezarri dabe; berebillak "aparcan" esan bearrean "estacionan" imiñi dabe; "Ciry Banc" en ordez, "Banco de la Ciudad", eta abar, eta abar.

Orrelan askoz obeto ulertzen dabe danak eta, bide batez, euren izkuntza zainduten dabe.

Au dana ta geiago (ego-ameriketarrak buruz) "AGRICULTURA" izeneko albistarian, bere 671'gnko. zenbakian (1988'gnko. Orrillakoan) diño.

Ori dana jakin ondoren, itaun batzuk bururatu jatatz, esaterako:

Gastelar izkuntza zaindu, sendotu ta al dan garbien eutsiteko arduratu ba'dira asmatzaille (inkinñeru) guztien laguntasuna eskatuaz, zergaitik geu be ez gara arduratzen apur bat, edo gaur egunean egiten dan baño geiago, geure EUSKERA maitea garbi ta sendotutzeko?

Zergaitik ez doguz bastertzen gaur egunean sartu

diran ainbeste kanpotar itz, batez be euskel-itz egokiak doguzanean?

Kanpotar itz bat artu baño lenago, zergaitik ez gara aleginduten euskera utsean esaten, batez ere jakin ezkerro geure eusko-sutraiak aberatzak dirala itz-egoki barriak atartzeko?

Ala geuk, aurrerapen atxakiakaz, zikindu bear dogu geure izkuntza?

Espaiñar asmatzailleak (inkinñeroak) euren izkuntzagaz arduratu ba'dira al dan ondoen eutsiteko, zergaitik geuk ez dogu bardin egiten?

Ala geuk, geure EUSKERA eutsi bearrean birrindu ta ezereztu bear dogu erdel itzak eta kanpotar joskera sartuaz?

Eta ez esan garbi-zaleak ("puritanismo" zaleak) izan diran eta gaur egun diran gizonen gauzea dala ori. Ez orixe!

Euzkotar zintzo bat, bere izkuntza benetan maite ba'dau, beti alegindu da ta aleginduko da, al dauanik eta kanpotar itz gitxien geure euskerean sartzeko. daiogun espaiñar asmatzailleengandik euren izkuntza al danik ondoen zaindu ta egokituteko benetan arduraztea erabagi dabela ikusten dogunean.

Ez ete gara gauza izango geure izkuntzaren alde egiteko, espaiñarrak euren alde egin gura daben beste?

Bestera egitea, au da: gero ta kanpotar itz geiago geurean sartzeta ez da euskeraren alde jokatzea, aurka baño; eta ori naiz ta euskeltzale dirala esan.

Esan dogun guztia euskeraren joskeran sartu barik da, emen be tamalgarria dalako jasoten dana, itzen arazoa baño gogorragoa. ta mingarriagoa oindiño. Baiña au beste arazo bat dalako gaur itxi egin bear dogu.

Esandakoagaz naikoa dala uste dogu geure artean benetako euskal-garbitasun-adorea zabaldu ta sartzeko. Ez ba'dogu olan ikusten, bestera baño, emetik urte gitxi barru berakada itzela egin dauela euskerea ikusiko dogu ta orduan ez bota errurik espaiñarrai geurea baka-riik izango da ta.

EGILEOR'tar JON

OARRA.—Itz batzuk. *aspimarratzea* lantxo onen egi-llarena da, orrelan obeto ulertzeko ta erakusteko nun eta zelan arduratu diran espaiñarrak. Geuk be ortan arduratu bear genduke.

## ARDURAZKO, OARRAK

Zu zeu zure ondoren onak eta zoritxarrak baiño geiago zara. Zure inguruan dagozanak eta zeureak diranak baiño gaiñetik zagoz zu. Zure duintasuna ez dago zure ondoren onean, munduko egitarauz ez dagokio zeure ondoren onari. Sarritan zoritxarrak argitsu gaindiko elburua bat onartu, otseindu ta serbitzen dau.

Jainkoak ez dausku eskatzen zorionsuak izateko. Bakarrik Aitaren aintzarako irabazte frutu andia artu daigun deituten deusku. Norberetasuna goresteke premiña dagoen aldietan bizi gara. Gaztediak estukuntza oartu ta sentitzen dau, urte gastetarik ta gogor dabiltz bear egiten gorestea lortzeko aloger on bat.

Baiña bizitza au sakon baten, maila, lerroan dirua egiteko da.

Jesus Jaunak ez eban, ostera, olan uste izan: Berak eskatzen deusku Jainko Erreiñua billatu daigula lenengo.

\*

Balio dau gogoratzea ta barriro esatea Jaunak ez gaitu maitatzen gaitu zorionsuak edo onak garealako; maitatzen gaitu txikiak garealako. Onak eta zintzoak izateko gura gaitu. Gure garaipen edo zoritxarrak ez dau aldatzen. Beraz, ez biotzik galdu, ez gogorik, oztu, munduak gura dauan lez aldi'onekoa, ez ba zara.

Bere maitasuna iraunkorra da, eguzkia langoxea onai eta txarrai argia eta beroa emoten dautsena. Jesukristo'ren Barri On, Ebanjelioa'-onak eta txarrak diran ganean aberestasuna, norberkeria ta al-izatea Jainkoaren eragozpenak lez agertzen jakuz. Umien bakan, berezko gogoia onartu ta goralduten da. Jesus'ek iñoan ikasi egizue nigandik ni biotz otzan ta apala naz-eta.

\*

### Zuk zeure osasuna baiño geiago balio dozu

Bizitza eginbidearen zeintasuna eragiteko da, sendoro fisika edo soiñaren baldintzakin.

Guztiok osasun ona daukogulakoan gagoz.

Zenbat balioduna dan ez dogu jakiten bera galdu-arte.

Alan be, osasuna ta gorputzaren itxurea izan leitekez norbaiten duintasunaren baikuntza. Osasun ona lurreko aukera onaren baldintza da. Iñor ez da ilten osasuntsu. Izan be, ardurazkoa benetan jakuna gogoaren aukera ona da.

Mari Karmen Alonsotegi'ko etxe-andra 23'ko seme gauseza, ezerezaren ama da. Oarturik, gogoratzuz norbaitzun gausezaren egiteak, berak bere buruari itandu eutson: "Eta zer esango dogu ezer egin dabenentzat? Ez daukie ezer guri emoteko?"

—Bai orixediño sendoro-Eurok emon leigue: Euro-pena, patzientzia-Euren eragozpen, ostopoz gu geure asmo oneko bideetan oker gabiltzanean: —Adore, keme-na eguneroko buru-auste prolemai aurrez-aurre egiteko. Indarra- ainbeste irain eri-tasun, gaixo aldietan dakartsenean.

Baiña emoten dauskuen emoitzarik andiena da- Maitasuna, ez lotuta, guztiz askaturik dagoana, alderdi-bagako, batzuetan, alkar erantzuneza; maitasuna emon leikie eta emoten dabe nasaiki, aukeran ta guztiai".

\*

### Bizitzan bearkizuna baiño andiago zara

Giza-taldeak ugari doaz arin-arinka bidean eurak besteak baiño andiagoak direala jakinerazoteko. Baita beste batzuk be sutan dagoz aldatzeak egiteko.

Bai lortzen dozu eginbearrok ez dautzula emoten duintasun naikorik giza- izatasunean. Bizibideak aldatzen dira jarraikiz. Aita-amaren egoerak, jarrerak igaroten doaz, zolitasunera seme-alabak eltzen diran bitartean. Jaurlaritzako Arduradunak kendu edo bastertzen dira, euren tokira sartuaz gizon ta andra gazteak. Zertzelada askotarikoak beartuten gaitue ogibidea aldatzera. Izatez, balio dauana norberbera da, ez daroazun txapela.

Bilbotar gizon gazte batek elektronika ondo ta sako-nez ikasteko aldi luze ta gogorak egin ebazan. Ori izan zan bere bizitzako gurari andiena, ta ondoren onez lortu eban.

Gero, Londres'era bideratu zan ta an osakuntza zertu edo egiztu. Geroago, bere bizibide zaleskora biurtu, eta aurkitu naibagekoa ta gogaikarria. Azkenean idazle lanari lotu, zorionez ondore ona.

Giza gogaeraz ezin geinke neurtu Jainkoaren Ardu-rea. Txarra dala guk uste doguna badaezpadako on bat izan leiteke. Ez diño, ba, erri esaera batek: "Ez dago txarrik onerako ez danik"? Ames-eten ta atsekabeak izan-oi-Jainkoaren eskuetan geure onurako. Jesus'ek esan eban: "Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak".

LETONA'k

## OARGARRI-ARDURAZKOAK

Ipar-aldeko Ameriketarra zan Oliver Wendel Holmes aitzukor andi bat izaten zan.

Egun baten trenaren txartela Washinton'en artu eban epaiketa bat egin bear-eta. Bultzilariak txartela eskatu eutsoenan, Holmes soiñeko sakeletan, urduri artega, asi zan billatzen, baiña alperrik.

Holmes jauna, ez egizu artu ardurari iñotson trengizonak Guk biok ezagutzen dogu alkar. Washinton'era zatozanean emongo deuskuzu zeure egokieraz"... Holmes'ek bere burua itunez orabilda: "Eskerrikasko, Nire lagun on, zuk ezin zeinke ulertu asmakizun au. Ez da arazoa ordaindu dotan alaez. Arazoa da nora noian?...

Bultzi edo bizitazko joan-aldian dabiltz andra-gizonak, eta larritzen dira, zoritxarrez dagoz, ez dakielako nora doazen. Ez dakie euren bizitzea zein aldetan dagon. Egun bakoitzean inguru-minguru, itzuli-mitzuli jarraikiak, ustekabeak, ameskeri, etsipenak, nekemiñak, eraso, eroso ta sasoidunak. Bizitzaren egun-bidea zer garean jakitea da, zelan zeu obetu zeintekezen, Jainkoagana urreratu ta zeure betirauneko alabear elburu, jo-muga lortu, jadestea.

Norberraren iraunkor zentzuna zabaldutea ez da izaten erraz egitekoa.

Alan da be, txango ibillaldirako, badira norabideak eta egitasmoak. "Jainkoak mundua ainbeste maite eban Bere Seme bakar emoterana be, edozein beragan sinisten dauana ez daiten galdu, bai betiko bizia euki dagaian (Jn. 3,16).

### Zu aukeratua ta maitatua zara

Ba-dago Jainkoa zeru-goienetan. Baiña Jainkobakoak itaunduten dau: —Zelan dakizu zuk?—. Olerkari batek damosku erantzuna: "Sagu bat da naikoa sinisbako milloika sinisterazoteko Jainko ba-dago ta aukeratu zaituta maitatu. Maitatu zindridazan lenengo, ta gero zugan arnasa bategaz bizisitzea sartu eutzun. Sartu zara, egin zenduan igaropidea eskutukiaren ezereztutik biziera, ta adindurara. Zure izatearen aurka sorturiko eragozpenak milloiak aurrean ziran. Notin bi bakarrik munduko edestian, zure gurasoak izan leitekezanak. Eurak bizi eitezan eunkida bertan, alkar aurkitu ta maite egien, edozeintariko zertzelada artean guzti ori da bakarrik zure jaiotza mirarien zatitxu bat. Zu eroan zintzazan bederatziz illebetez amaren sabelean ta maite izaniko ume bat ziñan.

Zeure iturburu-asiera gatx, saillak igarota, zuk bizerik urten dozu norbaitek jagon zaitualako. Jainkoagandik maitasun guztia dator. Bere maitasunagaitik aukeratu izan zara alabear, jo-muga betirako ames zoragarriena baiño aruntzago.

"Egon, bizi zaitetz bildur barik, neuk bir-erosi zaitudaz-eta neuk deitu zaitut zeure izenaz, zu neurea zara, nire begientzat ikusgarria, lillugarria zara, aintzatsu, omentua". (Ysaías, 43).

### EGUN-BIDE BAKARREAN ZEU ZAGOZ

Zure izatasun desbardiña besteengandik osoro alden-duta, ta dana ikusten dozu zeure inguruan. Beste giza-izaerakin zuk daukazun guztiena gauza bakarra da, zuen artetik bi ez direala zeatz bardiñak.

Sarri-askotan giza-talde-erdian be bakarrean zagoz. Zabiltz andik ona, emendik ara ezin esan aiñako bear-aldian. Batzuetan, zure gogo-guraria, ongundea irazakiz apur bat baretzen da baiña zu urrun zagoz zabiltz munduko gauzak asebete zagiezan; ezin zeinke gustiz kendu gosea, barru-barruan daroazu.

Josu Lagundi'ko lekaide batek GOGO-GOMUTAKIAK bere idaztian diño: "Gizon gaste bat munduko atsegiñetan murgilduta, eleiz-txadon baten aurkitzen da deardaka. Bera ez dagola bakarrik ba-daki. Ona emen, gure aldi artegatu ta kezkatu oneitan be errazoidun gogoeta ta indar barruka deiak baiño andiagoak zenbatzen ezin diran ainbestek oartzen daben erakusgai batzuk. "Gure biotzak artega dabiltz eta eztabe iñoiz atsedean osorik artuko, Zeugan, Jauna, betiko pozargi, alaitasun, atsedean artu-arte.

### ZEURE ONDOREN ON TA UTSAK BAIÑO GEIAGO

Ziur-ziurrez, zeu zara zure gauza guztiak baiño andi-go. Egunero ondasunak irabazten dira eta galdu be bai. Zeure duintasuna ez da, munduaren arauz zeure ondoren ona zelan duan.

Sarri ondamen zoritxar batek elburu argitsu gaindi-koari otseintzen deutso.

LETONA'k



# ZORIONA

(INDIA'KO IPUIÑA)

Antxiñatean gizonak, zeru gaiñeko jaungoikoak lez, "Zorion" betean bizi ziran. Eta zorionez eta bakean alkarrekin biziz, munduko jakintzan aurrerapen andiak egin ebezan: sua egiten ikasi eben, itsaso gaiñean ibiltzea asmatu eben, eta laster txorien antzera egaz egiten be aleginduko ziran...

Gizonen aurrerakuntza oneik ikusita, zeru gainean bizi diran jaungoikoak, ikaratu ziran, eta batzar bat eginenez, gizonai "Zoriona" lapurtzea erabagi eben.

Baiña... batzarreko jaungoiko batek esan eban:

Bai... Baiña... Gizonai "Zoriona" kendu ondoren, zer egingo dogu "Zorion" orregaz? Non gordeko dogu? Mendi gaillurean gordeten ba'dogu gizonak, buruz azkarrak dira, eta goraiño igoteko zerbait asmatuko dabe, eta oster a be "Zorionaren" jabe egingo dira. Eta itsaso sakonean ezkututzen ba'dogu, gizonak itsasoko urak ustuko dabez, eta galdutako "Zoriona" barriz lortuko dabe...

Zer egin?... Eztabaida askoren ondoren Brahma'gana aolku eske joatea erabagi eben. Brahma zarra zan, zeru gaiñean bizi ziran, jaungoiko guztien artean jakintsuena eta burutsuena... Eta onek zerbait argituko eban... Joan ziran, bada, Brahma'gana eta esan eutsoen:

Brahma Jauna, jaungoiko guztien aita, eta danak baiño argiagoa! Esaiguzu, non gorde bear dogu gizonai arrapatu deusagun "Zoriona", oneik ezin arrapatuko daben lekuan, guk ezkutatzeko?

Eta Brahmak erantzun: Emoidazue Zorion ori... Eta Brahmak "Zoriona" eskuetan artu, eta gizonaren bio-tzean gorde eban.

Ordutik ona gizonak, euren barruko zorion egarria ezin aserik, kanpora begira dabilta "Zorion" billa, eta ez dira jabetzen "Zoriona" gizon baktxaren barruan gordeta dagoala.

IÑAKI GOIKOETXEA



## ARGIA ETA ITZALA

Argia eta Itzala  
bizitzaren ardatzean.  
Goraberadun egala  
Bakoitzaren izatean.

Lau aro ditu urteak,  
Egungiro gazi-gezak:  
Atsegiñak ta nekezak,  
Lokatzak eta urreak.

Neguan ekaitza, gogor,  
Ta, udaran, lurra idor;

Udabarria iorankor  
Ta, udazkena beerakor.

Eta, gu, emen lurrean  
(uste ta, amets artean)  
Maitetasun itzalpean  
edo, itundurapean.

Utsa utsaren ganean,  
Lotzen ez bada bizia  
Anaitasun aripean,  
Maitasunez igurtzia.

MUNIATEGI-tar SABIN



## EUSKERA ABERASTU

Esaldi eta esaera-zaar oneik Axular'en "Gero" liburutik artu, eta bizkaierara apur bat aldatuta emen jarten dodaz. Zenbakiak orrialdeen ezaugarriak dira.

Dabilen arriari ez jako oroldirik lotzen (78).

Ur irikinean ez da eulirik kokatzen (78).

Erabilten dan erropari ez jako sitsik egiten (78).

Zugatzen emonkorra ez dau inok ebagiten (78).

Alperkeria gizonaren obia (Seneka) (83).

Bizi guztien iturburua alperkeria (Krisostomo) (83).

Iturritik ura lez, alperkeria gaiztakeria (83).

Nagitasuna pobretasunaren ama (83).

Alperkeria izlari ederra, barritsu andia (85).

Nagiak beti gero (86).

Alperkeriatan egun guztiak jai (91).

Ez eriotza baino jakiñagorik, ezta ordua baino ez jakiñagorik (99).

Amuak arrapatzen ditu arrainak, egaztiak sareak, eriotzak gizonak (104).

Jokoa ez da errenta (115).

Eginak egin (116). A lo hecho, pecho.

Azken gaiztoa egingo dok txoria, gaztetan egiten ez badok abia (248).

Egin daigun ona, begiratu barik nori (303).

Usoak joan eta sareak zabaldu (318).

Irabaziak oiñak arin (318).

Eziñak ez dauka legerik (326).

Otzara bat egin dauenak, egin leikez eun (353).

Ikusten ez dauan begiak, ez dau artzen minik (383).

\* \* \*

Esaldi oneik be Orixe'ren "Quito-n arrebarekin" liburutik artu dodaz, eta aurreko ilebeteetan legez, apur bat bizkaieraz aldatuta, eskeintzen deusuedaz. Zenbakiak orrialdeen ezaugarriak dira.

Itza bestera eroan daigun = Cambiemos de tema de conversación (70).

Guzurra zuri da = esaera zaarra.

Esan dozuna guzur baltza da = lo que has visto es una calumnia.

Matasa arildu = Aclarar un asunto enrevesado (Devanar la madeja) (75).

Kuku orreik! = ¡Fuera esos! (76).

Bereak eta bi esan = Cantar las verdades (78).

Muturra biurtu = vencer, someter.

Ez da sortu egi oneri musturra biurtuko deusnik = No hay quien lo pueda desmentir (80).

Jaungoikoaz onezkoak egin = hacer las paces.

Ez neuke aren narrupean egon nai = No quisiera estar en su pellejo (93).

Begiak zuringotu = Poner los ojos en blanco.

Ez gara zeruan egongo begiak zuringoturik = No estaremos en el cielo como alelados (97).

Au ala bazan sartu bedi kalabazan. Ez bazan loratu bedi baratzen = Ipuinak amaitzeko era bat.

frantzesaren buru jario eta mihin jario da = El es casquivano y charlatán (103).

Azala bear da = Hace falta ser caradura (105).

Espirituak ez dau lekurik artzen = El espíritu no ocupa lugar (113).

Jaungoikoaren itza bestera dago = Dios dice otra cosa (130).

Danean dantxoa, neure gizontxoa = esaera zaarra (Hacer lo poco que se pueda).

Aralarko aingeruari agertu bat egitera noa = Voy a hacer una visita (140).

Lo bete-betea gengoazala = Estando durmiendo a pierna suelta (175).

---

## AUR-EZIKETA (17)

---

### JUANTXO-TXIKIREKIN APAL

*Semea ondo ezitzeko*, arrokeri gitxi. Arrokeri-bidea ez dozu bide ona; oso txarra baiñe. Arrokeriak alde batera itzi eta apaltasunean ibiltzen ikasi bearke dozu, ezitzaille ona izan nai ba'dozu beintzat.

—Zeñiek eta nork ez dau bere umetxoen ezitzaille ona izan nai...?

—Aia bear litzake.

*Apaltasuna arlote* jantzita agertzen jaku gaurko gizarte onetan. Ez dau inork apal izan nai. Egia eta justizia dagoz modan gaurko egunez; baiña apaltasunari eta maitasunari giroa aldatu jake. Giro onik ez dabe gizarte onetan.

Izena ez da izana, izate guztiak izena euki arren. Apaltasunaren izena ez jaku gogoko; bere izana zertan dagoan ez badakigu be. Apaltasunaren izana zer da? Zertan dago apaltasun ori?

\*

*Apaltasuna egia da*. Orra zuk ainbeste maite dozun izena agertu da: egia. Nun dago apaltasuna? Arrokeria eta ergelkeriaren erdian, bien artean eta erdi-bidean.

Arrokeria, apaltasunaren beste ertza, guzurra da. Zeure burua jotzen dozu ontzat, edertzat, aunditzat... geiegiko neurrian; ez zara ainbeste, gitxiago be... Ingurukoak parre egiten dautsoe zure uste inuzurri.

Zeure burua izarretaraiño, arrokeriak artara eroanda, goratzen dozu konturatuta ala konturatzeko eta gezurretan zabiltzala danen bistan dago zeurean ezik. Itsututa zabiltzala dirudi. Zure jokabidea ez da egiazkoa...

—Orduan, nire burua lurreraiño zapaldu bearke dot...?

—Ori be ez litzake egia izango eta egia ez ba'da, apala be ez. Daukazuna aitortu, egia esateko eta apala izateko. Ez daukazuzenen jabe ez egiñ; daukazuzanak, ukatu barik. Daukazuzanak ukatzea ez da ez egia eta ez apala, lelokeria baino.

*Daukazuzan doaiak* euren neurrian ezagutzea, ori apaltasunaren egitekoa da. Ez daukazuzanak ez daukazuzala ezagutzea eta autortzea, ori be apaltasunaren lana dozu. Orra egia berriro. Doaiez beterik agertu zara mundu onetan baiña, zure izakeraren doai orreik inork emonak dozuz eta ez zeuk sortutakoak... Nondik dozu arrokeri ori...?

Auzoko Urliak baiño geiago dozula eta aizez puztu...? Arrotu...? Sorbaldagaiñetik lagunurkoari begiratu...? Billotsik eta nerru-gorritan jaió ziñeen biok eta alantxe ilko zaree biok. Bitartean bateri bost, besteari bi eta irugarrenari bat bakarrik talentuetatik. Bakoitzari eman jakon neurrian eskatuko jako berezko doai orreitatik. Zeure lagunek baiño geiago al dozu? Kontu geiago eskatuko jatzu. Orra dana zertan gelditu jatzun...

Arrokeriz ez dozu umetxorik ondo eziko eta aziko. Orretarako apaltasuna bearke dozu eta Jainkoaren laguntza. Jainkoa arrokeritik urrun dabil.

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CA~A IJE AHORROS  
**VIZCAINA**